


Donostia, 2018ko irailaren 26a

117/18 PRENTSA OHARRA

DBUS-EKO AUTOBUSEN ERABILERAK GORA EGIN DU 2018KO LEHEN SEIHILEKOAN

Azken urteetako joerari jarraituta, 2018ko lehen seihilekoan **14.195.767** bidaia erregistratu dira Dbuseko autobusetan; horrek esan nahi du aurreko urteko denbora tarte berean baino **255.463 bidaia gehiago** egin direla.

Hurrengo grafikoan, lehen seihilekoko emaitzek azken urteetan eduki duten bilakaera ikus daiteke, kontuan izanda 2013an Tarifa Bateratua sartzean erregistratu zen beherakada handia.



Analisis lineaz linea

Lineei dagokienez, 2018ko lehen seihilekoan gehien erabili den linea **Amara-Ospitaleak** izan da (**28 linea**), eta horren atzetik **Altzako** (**13 linea**) eta **Benta Berrikoa** (**5 linea**). Bidaiarien Garraio Publikoari buruzko UNE-EN 13816 arauaren arabera AENORen kalitate ziurtagiria duten hiru lineak dira, eta ziurtagiri horrekin linea horien zerbitzuaren kalitatea egiaztatzen da.

LINEA	2018
28-AMARA-OSPITALEAK	2.011.991
13-ALTZA	1.792.119
5-BENTA-BERRI	1.499.597
17-GROS-AMARA-MIRAMON	1.029.253
26-AMARA-MARTUTENE	778.220
33-LARRATXO-INTXAURR.-BERIO	690.463
14-BIDEBIETA	615.551
9-EGIA-INTXAURRONDO	566.968
25-B.BERRI-ANORGA	535.302
29-HEGO INTXAURRONDO SUR	469.496
31-INTXAUR.-OSPITALEAK-ALTZA	433.899
27-ALTZA-INTX.-ANTIGUA	373.680
8-GROS-INTXAURRONDO	363.918
24-ALTZA-GROS-ANTIGUO	345.880
18-SEMINARIOA	313.635
19-AIETE-BERA BERA	271.002
21-MUTUALITATEAK-ANOETA	270.360
40-GROS-ANTIGUO-IGARA	259.441
45-RENFE-BUS GELT.-ANTIGUO-AIETE	250.300
36-SAN ROKE-ALDAKONEA	220.226
16-IGELDO	194.880
37-RODIL-ZORROAGA	158.909
41-GROS-EGIA-MARTUTENE	138.937
23-ERRONDO-PUIO	126.982
32-PUIO-ERRONDO	125.679
42-ALDAPA-EGIA	73.938
35-ARRIOLA-ANTIGUO-OSPITALEAK	71.798
38-TRINTXERPE-ALTZA-MOLINAO	58.367
43-ANOETA-IGARA	40.846
B1-BENTABERRI-ANORGA	17.090
B4-AMARA-MARTUTENE	17.023
B6-ALTZA	14.243
46-MORLANS	13.436
B3-EGIA-INTXAURRONDO	12.572
B10-ZUBIAURRE-BIDEBIETA-BUENAV	11.488
TB6-ULIA	7.815
B8-MIRAK.-BBERRI-SEMINARIOA	7.687
B9-AMARA-ERRONDO-PUIO	6.002
B2-AIETE-BERA BERA	5.398
39-URGULL	1.274
B7-IGELDO	102
GUZTIRAKOAK	14.195.767

Era berean, sei hilabete hauetan bidaia kopuruak gora egiten jarraitu du **Antiguan**, **Berion**, **Ibaetan eta Igaran zerbitzua ematen duten lineetan** (5-25-33-40-43-45 lineak), aparteko 115.000 bidaia baino gehiagorekin, eta **Amaran zerbitzua ematen dutenetan** (17-21-26-28 lineak), aparteko 102.000 bidaia baino gehiagorekin. Modu

berean, Ekialdean aldaketarik garrantzitsuena izan da **Altza eta Bidebietako** lineek (13-14 lineak) eta **Egia eta Intxaurrondo** lineek (8-9-29-42 lineak) bidaia kopuruan eduki duten igoera. Zehazki, aparteko 40.000 eta 19.000 bidaia gehiago zenbatu dira, hurrenez hurren. **Aiete aldeko** lineek (18-19-23-31-32-45 lineak) gora egiten jarraitu dute, duela 2 urte egin ziren hobekuntzen ondoren. 38.000 bidaia baino gehiagoko igoera eduki dute.

Horrez gain, **Gautxori zerbitzuek gorakada handia** eduki dute, urte bat baino gehiagoan zerbitzu horien erabilera etengabe jaitsi ondoren. 2018ko lehen seihileko honetan, egoerak buelta ematen du eta aparteko 10.603 bidaia zenbatu dira, %13 baino gehiago hazi dela adierazita. Gorakada linea guzti-guztietan gertatu da, B4-Amara-Martutene linea izanik gehien erabilitakoa.

Azpimarratzekoa da, halaber, **TB6-Uliako Taxibusa eskaripeko zerbitzuaren gorakada**. 1.907 bidaia gehiago eduki ditu, eta horrek esan nahi du zerbitzuak %30 egin duela gora.

Halere, eta zenbaki positiboekin kontrajarrita, 2018ko lehen seihileko honetan Astiñeneko zubiaren itxierak 79.241 bidaiako jaitziera ekarri du itxiera horrek kaltetutako lineetan, hau da, 24, 27 eta 41 lineetan.

Bidaien analisia

2018ko lehen seihilekoan, **urtarrilaren 19a** izan da autobusa gehien erabili den eguna (San Sebastian bezpera). Egun horretan 115.837 lagunek hartu zuten autobusa. Urtarrilaren 19aren atzetik, **otsailaren 2a** eta **apirilaren 19a** (Europa Leagueko partida Anoetan) izan dira autobusa gehien erabili den egunak, horietan 99.193 eta 97.318 bidaia erregistratu baitziren, hurrenez hurren.

Zentzu horretan, lanegunetako autobusen batez besteko erabilera tarifak bateratu zirenetik handiena izan da, 90.746 bidaiarekin (89.329 bidaia 2017an). Larunbat eta jaiegunetako erabilerari dagokionez, lehen seihileko honetan batez besteko erabilera 2017koa baino handiagoa izan da, baita tarifak bateratu zirenetik erregistratutako handiena ere. Izan ere, larunbatetan 66.029 bidaia erregistratu dira (64.367 bidaia 2017an) eta 39.621 bidaia jaiegunetan (39.196 bidaia 2017an).

Informazio gehiago www.dbus.eus webgunean eta 943000200 telefono zenbakian.